

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0036

GAIA: Prozesu Deliberatiboa

ESPEDIENTEA: 2024DZIN0001

INTERESDUNA: GIZABIDEA FUNDAZIOA

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalbatzarrak GIZABIDEA FUNDAZIOArekin lankidetzak hitzarmena sinatzea onartu zuen Debagoienan trantsizio energetikoari buruzko deliberazio prozesua gauzatzeko, baita 9.410,51 €-ko dirulaguntza ematea ere, ordainketa bi urtetan banatuta: 5.646,30€ (%60) 2024. urtean eta 3.764,20€ (%40) 2026. urtean. Hitzarmena 2024ko abenduan sinatu zen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Ingurumen garapenerako teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren hamahirugarren klausulan jasotakoaren arabera, onartutako dirulaguntzaren %60 ordaintzea (5.646,30€).

ALKATEA

